

ERITXIAK

**KUSKAJRAREN «BARNE-NORMALKUNTZA»Z  
ZERTXOBAIT**

*(«Llei 8/1991, de 3 de maig, sobre Vautoritat linguistica de Flnstitut d'Estudis Catalans" delakoaren atxakiaz)*

Zuzenbide munduan beren bide propioaren bila dabiltzan disziplina berrien artean, badira beste herrialdetan garatuak izan diren batzuk, hain zuzen ere, gure hizkuntzak, euskarak, dituen arazo larriak konpontzeko lagungarri izan daitezkeenak.

Horietako bat, eta ez bairik gabe gaur egungo euskararen egoeraren punturik nagusiena dena, arlo sozial guztietan euskararen normalkuntza lortzekoa da, galdu zituen funtzioak berreskuratuz eta aldi berean, sekula bereak izan ez dituenak bereganatuz eta egituratuz. Alderdi honetatik, «Soziolinguistika»k eta normalizazio-tenikek dute hitza.

Honek guztionek eskatzen du, bistakoa denez, «normalkuntza» horretarako borondate garbia, euskarak gaur egun bizi duen egoera desorekatua onartu eta era berean, egoera hori gainditzeko bulkapena sortzen duena. Eskatzen du, baita ere aurrekoaren ondorio gisa, mekanismo juridiko batzuk asmatzea, gerokoan • helburuak finkatu eta helmuga horietara heltzeko zinezko «tresna» batzuk ezartzea.

ERITXIAK

75

Honetan ere lagun dezake Zuzenbideak, edozein gizarte antolarnendutan egin ohi duenez. Areago, Hizkuntz Zuzenbidea, arau linguistikoen erabilera eta aplikazioa zehazten dituen, berebiziko laguntza bihurtzen zaigu auzi honetan. Arlo pribatu zein publikoan, indibiduala nahiz kolektiboan, Zuzenbideak markatu eta erakusten dizkigu komunitate juridiko horren partaide edo partaideek dituzten eskubide eta obligazio linguistikoak.

Helburu jakin bati dagokion «lanabes» gisa konfiguratuz geroz, Hizkuntz Zuzenbidea eta bereziki euskarari dagokion legeriaren barneko bizpahiru puntu oinarritzko aukeratu dugu aztergaitz, batez ere «Ley de Normalizacion del Uso del Euskera» delakoa, bere barnean biltzen bait dira hemen interesatzen zaizkigun eleraentzuak.

Dena den, lege honek bi sentidutan du helburutzat euskararen normalkuntza:

A) Hizkuntzaren «status» delakoaren aldetik, hots, euskara, gizartearen ezein hizkuntzak jokatu behar duen papera jokatzera egokituz.

B) Hizkuntzaren «corpus» delakoaren aldetik, alegia, hizkuntza honen barne normalizazioa eta normatibizazioari buruzkoa. Hain zuzen ere, «normatibizazio» hori beharrezko dituen «teknolekto» edo espezializazio hizkuntza guztien zutabe trinkoa izango da gerokoan.

Egia esan, lehen arloari egokitu zaio batipat «Ley de Normalizacion del Uso del Euskera» delakoa. Bigarrean, ordea, formula mugagabearen erori da, konkretzio handitan ibiltzeke. Ausaz, funtsean zegoena zera zen: euskararen batasun prozesuan euskal gizarteak eduki eta jasan dituen neke eta gatazkak. Lege honen barnean, hala ere nabari zen horretarako asmoa:

Articulo 30: *El Gobierno velardpor la unificacion y normalization del euskera en su condition de lengua escrita oficial comun en elambito territorial de la Comunidad Autonoma del*

*Pais Vaseo, sinperjuicio del respeto a los diversos dialectos, parte esencial del patrimonio cultural del Pais Vaseo, en las zonas en que son hablados.*

Ildo beretik dator, etorri ere, Catalunyako lege hau. Izan ere, bi hizkuntzon batasun prozesuak ez dira berdinak izan ez eta parekoak ibili ere, kronologiaren aldetik behinik behin. Beraien errealitate soziolinguistikoak ere ez dira antzekoak. Baina askotan gure tartean ia topikoa bihurtu zaigun katalanekiko miresgarritasun hori, zerbait jaitsi eta lurrean jarri egin behar dugulakoan nago.

Ez dago besterik Lege honek esaten duena irakurri baino: hain zuzen ere, batasun prozesu latz eta luze baten ondorioz berriro ere, Catalunyan «Institut d'Estudis Catalans\* (hemengo «Euskaltzaindia»ren parekoa) delako erakundearen aginte linguistikoa indartu beharra dagoela, katalan hizkuntza standarizatu baten bidean.

Oinarri gisa honela dihardu lege testu honen lehen artikulua:

*Article 1*

*Es reconeix que l'Institut d'Estudis Catalans es la institucio encarregada d'establir i actualitzar la normativa Lingüística del català, sens perjudici de les altres funcions que li atorguen els seus estatuts.*

Horrek, nahitanahiez, eta guri dagokigun aldetik bederen, irakaspide batzuk ateratzeko bidea eman dezaiguke, hala nola:

A) Gernikako Estatutua eztabaidatzerakoan gertatu ziren Euskaltzaindiari buruzko kalapitak eta esamesak eta azkenean lortu zen formula itsusi eta mugagabea (erderazko «~~la~~» famatu haren desagerpena eta egungo idazketa ganorabakoa) gaindi daiteke eta lege arrunt batez Euskaltzaindiak euskararen barne normalizazioan jokatu behar eta jokatzen duen papera berrindartu, egun «de facto»zko egoera dena, legezkoa ere eginez.

Ondo aztertuz geroz, lege honen lehen artikuluan horixe besteriz ez da esaten, hau da, «Institut» delakoari dagokiola katalanaren normatiba linguistikoa ezartzea eta finkatzea. Horrela eginez geroz, gainera, Eusko Legebiltzarrak behin betirako eta Euskal Komunitate Autonomorako, arazo honen korapiloa askatuko luke.

B) Normatiba hau, bestalde ere, gobernu zein Administrazio publiko guztietan izango litzake derrigorrezkoa, lege honen bigarren artikulua gogoratzen digunez:

*Article 2*

*L'us lingüístic dels òrgans de l'Administració de la Generalitat, de les corporacions locals, de l'Administració de l'Estat a Catalunya i de les entitats autònomes, les empreses i les altres entitats i institucions que depenen de les esmenades administracions ha de respectar la normativa establerta per l'Institut d'Estudis Catalans.*

Hitz batez esateko, administrazio publikoaren erakunde zein elementu guztiak leudeke inplikaturik lan horretan.

Areago, irakaskuntza eta «mass media»k ere tartekoak ditugu:

*Article 3*

*L'us lingüístic dels centres d'ensenyament públics i privats i dels mitjans de comunicació de titularitat pública ha de respectar la normativa establerta per l'Institut d'Estudis Catalans.*

Ikusten denez, honako hau izan daiteke «Ley de Normalization del Uso del Euskera» delakoaren garapenerako puntu bat, hain zuzen ere, lehen aipaturiko bere 24. artikuluari berebiziko edukina emango liokeena.

C) Lege honek, hala ere, ez du ahanzten hizkuntz kontuetan beharrezkoa izaten den giroa, hau da «behartu» baino hobe dela «lagundu» eta «aholkatu», bere helburuak lortzeko. Honela, bere laugarren artikulua lehen zenbakian hauxe dio-

#### Article 4

1. L'Administració de la Generalitat ha d'establir els sistemes de col·laboració i d'assessorament necessaris per tal de garantir que els organismes que fan referenda als articles 2i3 segueixin en il·lurs usos lingüístics criteris coherents i ajustats a la normativa general de la llengua establerta per l'Institut d'Estudis Catalans.

Ez da hau, alabaina, prozesu erreza. Jakina denez, horrelako prozesuak gizarte osoaren laguntza behar izaten dute eta gatazkatsuak gertatzen dira gehienetan, euskararen kasuan gertatu denez. Horretara dator, etorri ere, «Institut d'Estudis Catalans»-ek aurtengo Maiatzaren 2lean egin duen deia, gai hauetan interesaturik dauden profesionalak eta jakintsuak lan honetan parte hartzera gonbidatuz.

D) Hala ere, hizkuntza guztiek duten erronka latzaren aurrean, hots, bere modernizazioaren prozesuaren aurrean, bereziki hizkuntza minorizatuen kasuan, espezialitate hizkuntzek badute bere zeresana ere eta lege honetan arlo hori arautua izan da, hizkuntza hauek, beharrezkoak diren neurrian, bere formazio prozesuan hizkuntza «orokor»etik aldentu ez daitezten. Beraz, espezializazio hizkuntzak (nola ahaztu «UZEI» eta «Elhuyar»en lana eta lehenengoaren inguruan sortu zen polemika!) normatiba honen magalean kokatzeko ahalegin berezia egingo du Generalitateak lege honen laugarren artikularen bigarren zenbakiak arautzen denez:

#### Artiklo 4

2 L'Administració de la Generalitat ha de vetllar perquè Velaboració dels llenguatges d'especialitat esfac ddcord amb la normativa de l'Institut d'Estudis Catalans.

E) Hizkuntza «minoritario» eta «minorizatu» baten egoerak, behin eta berriro errepikatu zaigunez, neurri bereziak galdatzen ditu. Neurri horiek ez dira inola ere agortzen «status» delakoari

dagokion arloan, beharrezkoa delako ere «corpus» - ari dagokiona. Euskararen kasuan ahaleginak egiten ari dira, denok erreferentzia eta abiapuntu berdina eduki dezagun, aurreko banaketak eta haserreak gaindituz.

Horrek, nahitanahiez, elkarrekin egindako lana erakartzen du eta euskarak behar duen «barne-normalizazioa» eduki beharko du helburutzat lan horrek. Horrelako batean legezko euskarria izan daiteke hemen azaldu dugun lege testuaren antzeko bat.

Katalanek legezko pauso garrantzitsu bat eman bide dute zeregin horretan. Gu geu, ordea, antzekorik egiteko gauza izango ote?

*Andres Urrutia*